



## ICOSOP PROIEKTUAREN AMAIERAKO KONFERENTZIA

ICOSOP proiektua – Politika publikoen gizarte-kontrolerako ekimena.<sup>1</sup>

Herritarrek politika publikoen kontrolean eta kudeaketan duten parte-hartzeari buruzko azterlan bat (ICOSOP) egin du Sevillako Pablo Olavide unibertsitateko DASP ikerketa-taldeak, Andaluziako Juntako Etxebizitza eta Sustapen Kontseilaritzak eta Europar Batasuneko FEDER funtsek kofinantzatuta.

Azterlanaren helburua da herritarren, erakunde politikoaren eta administrazio publikoaren arteko elkarrekintza handi dadin sustatzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologia IKT berriak erabiliz. Plataforma elkarrengile bat sortzea da asmoa, etxebizitzaren alorreko erronkei aurre egin eta haiei irtenbide bat emateko proposamenak kudeatzeko. Plataforma horrek topagune bat izan nahi du herritarrentzat, gaitasunak, trebetasunak eta jakintzak trukatzeko.

Egindako lanaren ondorioz, Andaluziako Etxebizitza Behatokiaren plataforma aurkeztu da. Etxebizitzaren alorreko politika publikoetan baitako gizarte-eskaria egituratzen duten kolektiboen beharrezan hautemateko egin den landa-lanaren konklusioetatik abiatuta eraiki da hura.

Plataformaren beta bertsioa kontsulta daiteke hemen argitaratutako txostenean: [http://www.upo.es/democraciayautonomias/export/sites/dya/proyectos/Proyecto\\_ICOSOP/pdf/ICOSOP\\_Informe\\_seguimiento\\_8.pdf](http://www.upo.es/democraciayautonomias/export/sites/dya/proyectos/Proyecto_ICOSOP/pdf/ICOSOP_Informe_seguimiento_8.pdf)

Politika publikoak gardenak, parte-hartzaileak eta kontrolatuak izan behar dutela zehaztu dute hautemandako beharrezanek. Egin diren eskakizun horiek adierazten dute parte-hartze eta lankidetzako elementuak barneratzea komeni dela web-plataforma diseinatu eta kudeatzeko, eta erakusten dute herritarrei informazio sistematizatua, deskargatzeko modukoa, berrerabilgarria, trazatzeko modukoa eta geolokalizagarria eskaini behar zaiela (ikus xehetasunak informatzaile giltzarriekin egindako landa-lanaren laburpen exekutiboan [http://www.upo.es/democraciayautonomias/export/sites/dya/proyectos/Proyecto\\_ICOSOP/pdf/Sumario\\_Ejecutivo\\_BDC.ICOSOP\\_5.pdf](http://www.upo.es/democraciayautonomias/export/sites/dya/proyectos/Proyecto_ICOSOP/pdf/Sumario_Ejecutivo_BDC.ICOSOP_5.pdf) ).

---

<sup>1</sup> Andaluziako Juntak 2013-2014 aldirako deitu zuen I+G+b alorreko proiektuetarako deialdian sartzen da proiektu hori, eta %80an kofinantzatu da Europar Batasuneko FEDER funtsekin. (G-GI3001/IDIZ espedientea). Informazio gehiago: [http://www.upo.es/democraciayautonomias/proyectos/Proyecto\\_ICOSOP/index.jsp](http://www.upo.es/democraciayautonomias/proyectos/Proyecto_ICOSOP/index.jsp)



## Zer nahi dugu

Proiektuaren alderdi teknikoaren eta izaera teknikorik ez duen alderdiaren arteko muga lan egin nahi du proiektuaren amaierako konferentziak; hau da, teknologiak parte-hartzearen alorrean ematen dizkigun aukeren eta parte hartzeko ohitura kultural errealean arteko harremanaz hausnartu nahi du.

Galdera hauek erantzun nahi dira: zer baldintza bete behar dira herritarrek parte har dezaten eta parte-hartze hori eraginkorra izan dadin? Horretarako baldintzarik ba al da gaur egungo kultura-ingurunean? Zer egin behar da online parte-hartzea sustatzeko aurkezten dugunaren moduko plataformetan?

## Nork parte hartzen du

Lider zibilek, profesionalek, kazetariak, politikariek, administrazio-arduradunek eta gizarte-alorreko ekintzaileak, eskarmentu handia eta ibilbide luzea dutenak herritarrek sare sozialen bidez gauzatzen dituzten parte-hartzeko prozesuetan.

## Helburuak

Hausnarketa kolektibo bat egitea da helburua, herritarren parte-hartzea hobetzeko bidea emango duen haztegi bat sortzeko, OVA plataformaren antzekoak baliatuta. Proiektuaren amaierako konferentziak, teknologia-plataforma eta landa-azterlana aurkezteaz gain, zenbait jarduera-ildori (edo planteamendu orokorri) buruzko gogoeta bat egiteko aukera eman behar du, parte-hartzerako plataformaren gaineko ezagutza eta haren erabilera nola handi daitekeen hausnartzeko. Lan horretan, bereziki aztertu behar da erakunde-eskaintza formalaren eta gure ingurunean dagoen parte hartzeko kulturaren arteko konbinazioa.

## METODOLOGIA

### **Konferentziaren aurretikoak.**

Elkarreragiteko aukera emango duen partaide-kopurua izango du konferentziak. Aldez aurretik konfirmatuko dira parte-hartzaileak, eta abiaburuko agiria (eskuetan duzun hau) emango zaie. Oinarrizko testu bat da, abiaburuko lan-ildoak, lortu nahi diren helburuak eta erabiliko den metodologia adierazten dituenak. Parte-hartzaileak, agiria aztertu ondoren eta saioa egin baino lehenago, agiri labur bat, orrialde batekoa edo bi orrialdekoa, bidaliko dute, eta DASP lantaldeak egindako hausnarketa eta oharrei emandako erantzunak azalduko dituzte agiri horretan. Testu laburra izango da, parte-hartzaileak galderen inguruan duen jarrera azalduko du, eta mahaiaren inguruan izango diren pertsonen zer jarrera duten jakiteko lehen aukera emango du. Gainerako parte-hartzaileei helaraziko zaizkie hasierako agiri horiek. Horrela jokaturik, informazioarekin egindako debata izango da, aberatsa eta efizientea, eta laburtu eta asmatzeko gaitasun handia izango duena.

Debata egitean, diskurtsoak lankidetzaren bidez zehaztu behar du zer arrazoi dauden landutako gaiaren oinarrian, eta hausnarketarako eta jendaurrean proposatzeko agiri bat egiteko bidea eman behar du. Saioaren amaierako zatian zehaztuko da agiri horren nolakoa.



## EGUTEGIA

Data: 2015eko ekainak 19

Lekua: Pablo de Olavide unibertsitatea (Utrerako errepidea 1. km, 41013 PK, Sevilla)

## BEHIN BETIKO EGITARAUA:

10.00 -Parte-hartzea demokrazian.

Inaugurazio-konferentzia, Manuel Zafra jaunaren eskutik, eta ICOSOP proiektuaren eta Andaluziako Etxebizitza Behatokiko plataformaren aurkezpena, Xavier Coller eta Benito Caetano jaunaren eskutik.

11:45 - Kaferako atsedena.

11:45 - Etxebizitzaren alorreko adituen eta erakundeen mahaia. Erakundeek parte-hartzearen alorrean dituzten erronkak. Mahaia bi lantaldetan banatuko da eta aldi berean egingo dute lana.

13:15 Bi lantaldeek batera osoko bilkura egingo dute.

14.30 Mintegiaren itxiera eta bazkaria.